

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

62/2020 Foru Agindua, otsailaren 25ekoa, zeinak hasierako onespina ematen baitio Bernedoko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Okinan, jarduera sismikoa neurtzeko "Okin" izeneko instalazio bat (Euskalsis sarearen barruan eta Energiaren Euskal Erakundeak sustatua) jartzeko proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari

Energiaren Euskal Erakundea (EEE) Ekonomiaren Garapenaren eta Azpiegituren Sailari atxikia dago, eta Bernedoko Udalarari udal lizentzia eskatu dio Okina herriko lurzoru urbanizaezinean, hain zuzen, 2 poligonoko 331 lurzatian, jarduera sismikoa neurtzeko "Okin" izeneko instalazioa jartzeko (Euskalsis sarearen barruan).

Bernedoko Udalak espediente bat bidali, eta proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetzeko eskatu du, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen zati da aurkeztutako eskaera, eta haren arabera, Energiaren Euskal Erakundeak ardura du Euskal Autonomia Erkidegoko geologia eta meategien azpiegitura datuak aztertzea, mantendu eta gizartearen eskura jartzeko, Geologia eta Meatzaritza Balibideen Arloaren bitartez. Horrenbestez, jarduera sismologikoa monitorizatzeko sistema bat ezartzeko prozesua abiarazi du, Euskalsis sarea izeneko sare sismiko propio batekin, zeina osatuko baitu neurketa estazio sorta batek, lurralde guztian zehar modu homogeenan banatuak (batetik bestera 25 km-ko distantziarekin). Lortutako datuak denbora errealean gorde eta transmitituko dira irakurketako oinarritzako estazio batera, eta gero, integratu, prozesatu eta interpretatu egingo dira. Azken batean lortu nahi da datuak eta haien interpretazioa komunitate zientifikoaren eta jende guztiaren esku jartzea web atari baten bidez.

Aurkeztu den proiektuarekin bat etorritik, jarriko diren ekipoen artean kontrol putzu bat egongo da, zeinetan zundaketa batean biraketa bidezko zulaketa egingo baita arroka aldatu gabera iritsi arte. Zulaketak 10 metro inguruko sakonera izango du eta zundaketa altzairuzko hodi batez estaliko da. Putzuak zola berdindua izango du, eta han geofono bat jarriko da. Era berean, bandalismoaren aurkako itxitura bat jarriko da, putzua bere horretan zaintzeko.

Instalazioa amaitzeko, hormigoi aurrefabrikatuzko ekipotarako etxola bat jarriko da, han honako hauek izateko: ekipu erregistratzaile automatikoa, komunikazio ekipoa eta sistema elektrikoa. Horrez gain, bandalismoaren aurkako itxitura izango du. Elektrizitatea sortzeko sistema bat izango du, panel fotovoltaikoez eta metaketa bateriez osatua, estazioaren energia eskakizun guztiari erantzuteko. Instalazioa metalezko babes hesi batez egongo da inguratuta. Guztira, ez da 9 m² baino gehiago okupatuko.

Udalak udal arkitektoak egindako aldeko txostena aurkeztu zuen, zeinetan adierazten baita proiektuan jasotako kokapena lurzoru urbanizaezinean dagoela, 6 zonan (leheneratu beharreko basogintzako babes zona), eta udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera, onartuta daudela erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikin, instalazio eta azpiegiturak.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientearen ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak bera-riaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Bigarrena. Abenduaren 30eko 367/2019 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Espedientea, hain zuzen ere, 2020ko urtarrilaren 22ko ALHAOn (8. zenbakia) argitaratu zen, eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu hartarako eman zen epean.

Hirugarrena. Proiektuaren interes publikoari dagokionez, Euskalsis sare sismologikoaren helburuetan oinarritzen da, eta sare horretan sartzen da espediente honen xede den proiektua. EEEK, Geologia eta Meatze Baliabideen arloaren bidez, Euskadiko lurpeko sismikotasuna ikertzeko jardueretan parte hartzen du eta, hedaduraz, Euskal Kantauriar Arroarena, batez ere lurpe geologikoaren jarduera tektonikoa ezagutzeko eta ebaluatzeko, egitura geologikoen ezagutza, egoera eta sakonera hobetzeko, batez ere failak, eta lurra arrisku sismikoaren araberaz zonifikatzeko, eraikuntza arau egokiak ezartzeko eta lurraldearen erabilera jakin batzuk mugatzeko.

EEEk alor horretan egiten duen jarduerari buruz ematen duen informaziotik ondorioztatzen da, duela zenbait urte, SISCAN sarearen bidez, sismikotasunari buruzko datuak zabaltzea, monitorizatzea, lortzea eta interpretatzea erabaki zuela. Proiektu hori Oviedoko Unibertsitateko Geologia Saileko Barne Geodinamikako Katedrak gidatzen zuen, Euskal Herriko eta Kantauriko Arroko sismikotasuna ikertzeko. Datuak lehendik zeuden beste sare batzuekin ere partekatu dira, hala nola Institutu Geografiko Nazionalarekin eta Topo-Iberia proiektuarekin, eta horrek aukera ematen du neurketa puntuak dentsifikatzeko eta erregistratutako seismoen epizentrotan kokapenari buruzko balio zehatzagoak lortzeko. Gaur egun, eta jarduera sismologikoa monitorizatzeko sistema bat modu iraunkorrean ezartze aldera, EEE sare sismiko bat ezartzen ari da, Euskalsis Sarea izenekoa. Sare hori Euskal Autonomia Erkidego osoan zehar banatutako neurketa estazioen sare bat da, denbora errealean datuak bildu eta transmititzen dituen, datu horiek prozesatzeko eta interpretatzeko. Sare horren azken helburua da datuak komunitate zientifikoaren eskura jartzea eta, oro har, jendearen eskura, web atari baten bidez, goian esan denez.

Energiaren Euskal Erakundearen web orriak, Sismikotasunaren Euskal Sareari buruzko atalean, esteka bat dauka zuzenean International Federation of Digital Seismograph Networks (FDSN) federazioaren webgunera eramaten zaituen, eta haren kide da. Nazioarteko erakunde horretan, kideek neurtze estazioak nola koordinatu adosten dute, datuak modu askean eta irekian partekatzeko, xedea baita mundu guztiko komunitate zientifikoak aurrerapausoak ematea, batez ere munduko jarduera sismikoa aztertzean.

Laugarrena. Hirigintza araudiari dagokionez, Bernedoko udalerriko arau subsidiarioen 137. artikulua (Zona bakoitzean baimendutako erabilerak eta jarduerak), lurzoru urbanizaezinarri dagokionez, bere 2. puntuan jasotzen du 6 zonan (leheneratu beharreko basogintzako babes zona) baimendutako erabilerak, eta onartutzat jotzen dira erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikin, instalazio eta azpiegiturak, baldin eta baso ingurunean kokatu behar badira ezinbestean lurri lotutako jarduerak garatzearen, arrazoizko zientifiko, topografiko edo antzekoengatik.

Proiektuan jasotako instalazioaren ezaugarriak eta helburuen izaera kontuan hartuta, "Okina" estazio sismikoa erabat txertatzen da 6 zonan baimendutako eraikuntza erabilera eta jardueretan, erabilera publikoko eta gizarte intereseko instalazio bat delako. Ondorioz, azpiegiturak berak dituen ezaugarriak direla eta, instalazioa landa lurretan eta kokaleku zehatz horretan kokatzea justifikatuta dago, proiektuan jasotakoaren arabera.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikoa adieraztea Bernedoko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, Okinan, jarduera sismikoa neurtzeko "Okin" izeneko instalazio bat (Euskalsis sarearen barruan eta Energiaren Euskal Erakundeak sustatua), Okinako 2 poligonoko 331 lurzatian, jartzeko proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoa aitortzeak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udala da dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa, eta hark baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsua.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 25a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO